

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4201

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 11koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez berrikusten eta aldatzen baita Safety Kleen España SA sozietateari Vitoria-Gasteizko udal-mugartean (Araba) hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta aldi baterako biltegitratzeko emandako ingurumen-baimen integratua.

EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez, Safety Kleen España SAr ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Vitoria-Gasteizko udal-mugartean (Araba) hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta aldi baterako biltegitratzeko jarduerarako.

2.– 2015eko abuztuaren 13an, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen Safety Kleen España SAK, 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren aurka.

3.– 2021eko uztailaren 13an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zion Safety Kleen España SAr: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioari buruzko beste dokumentu batzuk.

4.– 2021eko uztailaren 30ean, Vitoria-Gasteizko Udalak txostena egin zuen.

5.– 2022ko urtarrilaren 20an, ingurumen-baimen integratua berrikusteko eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen Safety Kleen España SAK.

6.– Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela egiaztatu ondoren, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2022ko otsailaren 1eko Iragarkiaren bidez, Safety Kleen España SAren ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea erabaki zen, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko, eta, horrenbestez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2022ko otsailaren 24an.

7.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaitutakoan, ez zen alegaziorik aurkeztu.

8.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2022ko martxoaren 2an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Amvisari, eta, 2022ko martxoaren 29an, Arabako Osasun Publikoko Zuzendaritzari eta Vitoria-Gasteizko Udalari.

9.– 2022ko apirilaren 22an, Arabako Osasun Publikoko Zuzendaritzak txostena egin zuen, eta espedientean jaso da txosten horren emaitza.

10.– 2022ko uztailaren 21ean, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Safety Kleen España SAren esku utzi zen espediente osoa, espedientean jasotako emaitzarekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2007ko urriaren 24an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea.

2.– 2008ko abenduaren 23an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen garapen partzialerako erregelamendua onartzen duena.

3.– 2011ko uztailaren 29an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

4.– 2012ko urtarrilaren 23an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen.

5.– 2013ko urriaren 19an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

6.– 2013ko abenduaren 11n Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea argitaratu zen.

7.– 2014ko abenduaren 18an Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua onartu zen. Haren bidez, 2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztu zen; onartu zen, orobat, Batzordearen 2014/955/EB Zuzentaraua (Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritz.

8.– 2015eko otsailaren 21ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa (TEEH). Bertan, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeatzaileentzako betekizun eta baldintza tekniko batzuk ezarri ziren.

9.– 2015eko ekainaren 25ean Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea onartu zen.

10.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

11.– 2019ko urriaren 15ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen TEC/1023/2019 Agindua, urriaren 10ekoa, zeinean ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahitaezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueri –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehentasun-mailakotzat sailkatuak–.

12.– Ingurumen-baimen integratua eman ondoren, ingurumenari buruzko araudi berria promulgatu da; beraz, egokia da indarrean dagoen araudi berrira egokitzea, ofizioz, Ingurumeneko Sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren baldintzak, ebazpen horren laugarren apartatuan ezarritakoari eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

13.– 2020ko urtarrilaren 22an eta otsailaren 4an, hurrenez hurren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea, eta 2020ko urtarrilaren 23ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez jarraibide tekniko bat onartzen baita, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzkoa, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

14.– 2020ko urtarrilaren 27an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 4/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, zeinaren bidez indargabetu egiten baita irailaren 25eko

183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

15.– 2020ko ekainaren 19an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duena.

16.– 2021eko azaroan Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana onartu zen.

17.– 2022ko apirilaren 1ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 208/2022 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, Hondakinen Arloko Finantza Bermeei buruzkoa.

Aipatutako legeria eta oro har zein berariaz gai honetan aplikatu behar diren gainerako arau guztiak aintzat hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Berrikustea Safety Kleen España SAri 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua (Vitoria-Gasteizko udal-mugartean –Araba– hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta aldi baterako biltegitratzeko jarduera gauzatzeko), Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakian azaltzen den baldintzetan.

Bigarrena.– Aldatzea Safety Kleen España SAri 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua (hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta aldi baterako biltegitratzeko jarduera gauzatzeko), eta, zentzu horretan, ebazpen horretako lehenengo, bigarren eta laugarren apartatuak ere aldatzea. Honela geratuko dira idatzita:

«Lehenengoa.– Safety Kleen España SAri ematea (egoitza soziala: Castilla etorbidea 2, Dublin eraikina, 1. solairua, San Fernando de Henares; IFK: A78099660) Vitoria-Gasteizko udal-mugartean hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta aldi baterako biltegitratzeko instalaziorako ingurumen-baimen integratua, ebazpen honen bigarren apartatuan zehaztutako baldintzen arabera.

Jarduera abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 1. eranskineko 5.6 kategorian dago sartuta:

"5.6.– Aldi baterako biltegitratzea 5.5 puntuan sartuta ez dauden hondakin arriskutsuak, harik eta 5.1, 5.2, 5.5 eta 5.7 puntuetan adierazitako tratamenduak ematen zaizkien arte (salbu eta aldi baterako biltegitratzea sortzen diren lekuan bertan, harik eta handik jasotzen diren arte), guztizko edukiera 50 tonatik gorakoa denean".

Enpresak egiten duen jarduera produktu kimikoak banatu eta biltegitratzean datza, eta hondakin arriskutsuak transferitu eta biltegitratzeko zentro bati lotuta dago.

Ez da egiten tratatze- edo ezabatze-jarduerarik, ezpada hondakin arriskutsuen arloko logistika eta biltegitratzea, 136 m³-ko edukierarekin (R13/D15 kudeaketa-eragiketa).

Hondakin arriskutsuekin egin behar den kudeaketa bi eratakoa izango da, bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuaren arabera:

– Kudeaketa ziklikoa: bezeroak erabilitako produktua jasotzea (garbiketa-prozesuan eskuarki), hondakina garraiatu eta aldi baterako biltegitratzea, eta hori leheneratzeko zentro kudeatzaile batera eramatea. Birziklatu ondoren, biltegitratu egiten da, eta bezeroari entregatzen zaio, berriro erabiltzeko.

Honetan datza kudeaketa ziklikoaren sistematika:

– Hondakina bezeroaren instalazioetan jasotzea eta Safety Kleenen instalaziora eramatea.

2022ko irailaren 28a, asteazkena

- Biltegitratzea.
- Hondakina jasotzea eta leheneratze-instalaziora eramatea.
- Produktu leheneratua edo birjina Safety Kleenera eramatea.
- Biltegitratzea.
- Produktu leheneratua edo birjina bezeroari eramatea edo entregatzea.

Dena dela, sistematika apur bat aldatzen da produktu motaren arabera.

– Safety Kleen koipegabetzailea: hondakina bidoietan jasotzen da, eta kanpoko andel finko batean –hartarako egokitutakoan– biltegitratzen da. Halaber, bidoiak garbitzen dira. Hondakina andeletik atera eta zisterna-kamioi batean sartzen da, zeinak leheneratze-instalaziora eramaten baitu. Gero, produktu leheneratua edo birjina Safety Kleenen instalazioetara eramaten da, eta kanpoko andel finko batean biltegitratzen da. Hori egin ostean, 60 eta 100 litroko bidoietan ontziratzen da, eta bezeroen instalazioetara eramaten.

– Beste era bateko disolbatzaileak: kasu hauetan, bidoietan biltzen da produktua, ontzi mugikorretan jarri –hartarako egokitutako biltegi batean–, leheneratze-instalaziora eraman, eta bidoietan ekartzen da berriro Safety Kleenera.

Produktuez gain, Safety Kleenek badauka zenbait eratako makinaz hornitzeko zerbitzua.

– Kudeaketa lineala: bezeroak erabilitako produktua jasotzea, hondakina aldi baterako biltegitratzea eta hori tratatzeko zentro kudeatzaile batera eramatea.

Honetan datza kudeaketa linealaren sistematika:

- Hondakina bezeroaren instalazioetan jasotzea eta Safety Kleenen instalaziora eramatea.
- Ontzi mugikorretarako biltegian gordetzea.
- Hondakin arriskutsuen azken tratamendua egiteko instalaziora eramatea hondakinak.

Kudeaketa linealetik bideratzen diren hondakinak inprimategietan eta automobil-tailerretan sortzen dira, nagusiki: olio-iragazkiak, izotz-kontrakoa, balazta-likidoa, lixaketako hautsa, tintadun disolbatzailea, garbiketarako sorkiak, ontzi hutsak, etab. Kasu horietan, hondakinak jasotzen diren lekuan ez dago azterketarik egin beharrik, haien konposizioa ia finkoa baita.

Identifikatzen ez diren hondakinen kasuan, laginak hartu, eta tratamendu-instalaziora eramango dira, non eta euren kudeaketa egitea aurreikusten den, han laginen azterketa egin dadin eta zehaztu dadin ea Safety Kleenek halako hondakinak onar ditzakeen ala ez, betiere enpresa horrek duen hondakinak kudeatzeko baimena betez.

Sortutako hondakin-urak Jundizko industrialdeko udal-kolektorean tratatzen dira.

Sortutako hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak ekipoak mantentzeko eta instalazioa zainzeko jarduera orokorretatik datoz, nagusiki.

Safety Kleen España SAren jardueran, teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira, zehazki, dokumentu honetan biltzen direnak: "Hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera. 2018ko abuztua": TEO1, TEO2, TEO3, TEO4, TEO5, TEO11, TEO14, TEO18, TEO19, TEO21, TEO23, TEO24».

«Bigarrena.– Vitoria-Gasteizko udal-mugarrean, Safety Kleen España SAk sustatzen duen jarduera –hondakin arriskutsuak bildu, garraiatu eta aldi baterako biltegitratzekoa– ustia dadin, honako baldintza eta eskakizuna hauek ezartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguria.

Gutxienez sei ehun mila euroko (600.000) erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, honako hauek estaliko dituena: hirugarren pertsoneri edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatzen den ingurumena konpondu eta leheneratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahalko da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera igota.

B) Fidantza.

Hogeita hamalau mila hirurehun eta berrogeita hamar (34.350) euroko fidantza jartzea, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23. artikulua 5.b) apartatua xedatutakoari jarraikiz. Fidantza horren zenbatekoa zehazten da, hondakinak tratatu eta biltegitratzeko gehieneko edukieraren arabera.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahalko da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera igota.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, harik eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak Safety Kleen España SAK sustatutako hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera uztea baimentzen duen arte edo aipatu enpresak jarduera uzteko finkatutako baldintzak betetzen dituen arte; baldintza horiek, betiere, barne hartu beharko dituzte lurzoruaren kalitatearen gaineko adierazpean ezartzen diren betekizunak.

C) Ingurumen-erantzukizuna.

Safety Kleen España SAK administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz emandako datuen edozein aldaketaren berri emango dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala beteko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta honako apartatu hauetan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakinak hartu, manipulatu eta biltegitratzeko baldintzak eta kontrolak.

Instalazioan balorizazioa egiteko onar daitezkeen hondakinak hurrengo apartatuetan daude zehaztuta, horiek behar bezala kudeatzeko zehaztapenekin batera.

D.1.1.– Hondakin onargarriak.

Safety Kleen España SAK Hondakinen Europako Zerrendako HEZ kodea duten hondakin hauek tratatu ahal izango ditu goian aipatutako tratamendu-sistemen bidez. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (erabaki horren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauan xedatutakoa betez). Halaber, aipatutako erabakiaren arabera emango zaie hondakinei dagokien kodea eta sailkapena, baita Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera ere. Erregelamendu horrek ordeztu du Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (2008/98/EE Zuzentaria, hondakinei buruzkoa eta zuzentaria jakin batzuk indargabetzen dituena). Hortaz, ondoren adierazten diren hondakin hauek baino ez dira onartuko:

a) Transferentzia-zentroa - Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzea.

2022ko irailaren 28a, asteazkena

HEZ kodea	Hondakinaren deskribapena
030104	Zerrautsa, txirbilak, ebakinak, zura, partikula-taulak eta txapak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
060101	Azido sulfurikoa eta azido sulfurosoa
060102	Azido klorhidrikoa
060104	Azido fosforikoa eta azido fosforoso
060106	Beste azido batzuk (disoluzio akuoso azidoak)
060201	Kaltzio hidroxidoa
060204	Potasio hidroxidoa eta sodio hidroxidoa
060205	Beste base batzuk (disoluzio akuoso oinarritutakoak)
061302	Ikatz aktibatu erabilia (06 07 02 kategoria izan ezik)
070101	Garbiketa-likidoak eta likore ama akuosoak
070104	Beste disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko batzuk
070108	Erreakzioko eta destilazioko beste hondakin batzuk
070201	Garbiketa-likidoak eta likore ama akuosoak
070204	Beste disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko batzuk
070214	Substantzia arriskutsuak dituzten gehigarrietatik sortutako hondakinak
070301	Garbiketa-likidoak eta likore ama akuosoak
070304	Beste disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko batzuk
070704	Beste disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko batzuk
080111	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten pintura- eta berniz-hondakinak
080113	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten pintura- eta berniz-lohiak
080115	Pintura edo berniza duten lohi akuosoak, disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dauzkatena
080117	Pintura eta berniza desugertzearen edo kentzearen ondoriozko hondakinak, disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dauzkatena
080119	Pintura edo berniza daukaten esekidura akuosoak, disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dauzkatena
080312	Substantzia arriskutsuak dituzten tinten hondakinak
080314	Substantzia arriskutsuak dituzten tinten lohiak
080317	Substantzia arriskutsuak dituzten inprimatze-tonerren hondakinak
080409	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten itsasgarri eta zigilagarrien hondakinak
080411	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten itsasgarri eta zigilagarrien lohiak
080413	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten itsasgarri edo zigilagarrien lohi akuosoak
080415	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten itsasgarri edo zigilagarrien hondakin likido akuosoak

2022ko irailaren 28a, asteazkena

HEZ kodea	Hondakinaren deskribapena
090101	Errebelatzeko eta aktibatze ur-disoluzioak
090102	Inprimatzeko plakak errebelatzeko ur-disoluzioak
090103	Disolbatzaileak dauzkaten errebelatzeko disoluzioak
090104	Finkatze-disoluzioak (argazki-finkatzailea)
120109	Mekanizazioko emultsioak eta disoluzioak, halogenorik gabeak (ebaketa-likidoak)
120112	Argizari eta koipe erabiliak
120114	Sustantzia arriskutsuak dauzkaten mekanizazio-lohiak
120116	Granailaketako edo zurrutadako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
120301	Garbiketa-likido akuosoak
120302	Koipe-kentzea lurrunarekin egitean sortutako hondakinak
130502	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetako lohiak
130506	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datozen olioak
130507	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datorren ur oliotsua
130508	Harea kentzeko tangetatik eta uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datozen hondakin-nahasteak
130701	Fuel-olioa eta gasolioa
130702	Gasolina
130703	Erregaiak eta hidrokarburoen nahasketako beste erregai batzuk
140602	Beste disolbatzaile eta disolbatzaile halogenatuen nahasketa batzuk
140603	Beste disolbatzaile eta disolbatzaile-nahasketa batzuk
140605	Beste disolbatzaile batzuk dituzten hondakin solidoak eta lohiak (White Spirit lohiak)
150110	Substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiekin kutsatuta dauden ontziak
150111	Matrize arriskutsu solido eta porotsua daukaten (esate baterako, amiantoak) ontzi metalikoak, presio-ontzi hutsak barne
150202	Xurgatzaileak, iragazteko materialak (beste kategoria batean aipatzen ez diren olio-iragazkiak barne), garbitzeko zapiak eta babesteko arropak, substantzia arriskutsuekin kutsatuta daudenak
160107	Olio-iragazkiak
160111	Amiantoak daukaten balazta-zapatak
160113	Balazta-likidoak
160114	Substantzia arriskutsuak dauzkaten izotz-kontrakoak
160121	Beste substantzia arriskutsu batzuk, 16 01 07 eta 16 01 11 arteko kodeetan eta 16 01 13 eta 16 01 14 kodeetan aipatu ez direnak
160213	Substantzia arriskutsuak dauzkaten baztertutako tresnak (1), 16 02 09 eta 16 02 12 arteko kodeetan zehazten ez direnak
160215	Baztertutako ekipoetatik kendutako substantzia arriskutsuak
160303	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin ez-organikoak
160305	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin organikoak

2022ko irailaren 28a, asteazkena

HEZ kodea	Hondakinaren deskribapena
160504	Presiozko ontzietako gasak (haloia barne), substantzia arriskutsuak dituztenak (aerosolak)
160506	Laborategiko produktu kimikoak, substantzia arriskutsuak direnak, produktu kimikoen nahasketak barne direla, edo halako produktuak dituztenak
160601	Berunezko bateriak
160602	Ni-Cd metagailuak
160603	Merkurioa duten pilak (botoi-pilak)
160708	Hidrokarburoak dauzkaten hondakinak
160709	Beste sustantzia arriskutsu batzuk dituzten hondakinak
170204	Substantzia arriskutsuak dauzkaten edo haiekin kutsatuta dauden beira, plastikoa eta zura
170409	Substantzia arriskutsuekin kutsatuta dauden hondakin metalikoak
170503	Substantzia arriskutsuak dauzkaten lur eta harriak
190205	Substantzia arriskutsuak dituzten tratamendu fisiko-kimikoetako lohiak (araztegiko lohiak)
190806	Erretxina ioi-trukatzaile aseak edo erabiliak
200115	Alkaliak
200121	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten beste hondakin batzuk
200129	Substantzia arriskutsuak dauzkaten detergenteak
200133	16 06 01, 16 06 02 edo 16 06 03 kodeetan aipatutako bateriak eta metagailuak, eta bateria horiek dauzkaten bateria eta metagailu sailkatugabeak
200135	Baztertutako ekipo elektrikoak eta elektronikoak, 20 01 21 eta 20 01 23 kodeetan aipatu ez direnak eta substantzia arriskutsuak dauzkatenak

Halaber, zamaianak baimentzen dira, eta, behar izanez gero, hondakin horien berrontzi-ratze-eragiketak.

– Baimen honen esparrutik kanpo geratuko dira betiere leherkariak, erregarriak eta hondakin infekziosoak (HP1, HP2 eta HP9 arriskugarritasun-kodeak dagozkie, hurrenez hurren), HP12 arriskugarritasun multzoko hondakinak eta bifenilo polikloratuak edo terfenilo polikloratuak izan edo osagai horiekin kutsatuta daudenak (C32 osagai-kodedunak). Ekipo elektriko eta elektroniko hondakinak eta hodi fluoreszenteak honen arabera kudeatuko dira, 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, gailu elektrikoak eta elektronikoak hondakinei buruzkoa.

– Halaber, pilen eta metagailuen hondakinak otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan –pilen eta metagailuen hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoan– xedatutakoaren arabera kudeatu beharko dira.

– Safety Kleen España SAK industrian sortutako etxeko zaborrak eta merkataritza-hondakinak kudeatu ahal izango ditu (20. taldeko HEZ kodea duten hondakinak), ebazpen honetan adierazitakoak soilik, baldin eta udal-ordenantzen arabera ez bada beharrezkoa hondakinok hondakinen kudeaketa-sistema publiko bati entregatzea.

D.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

Instalaziora balorazioa egiteko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, ebazpen honetako baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko.

Instalazioan inola ere ez dira onartuko ebazpen honetan zehaztu ez diren hondakinak, edota, hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, bestelako hondakin mota generikoren batekin kutsatuta daudenak. Nolanahi ere, hondakin mota gehiago kudeatu ahal izateko, beharrezkoa izango da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onarpena lortzea alde aurretik, eta ebazpen honen I. apartatuan ezartzen dena betetzea.

Lantegian tratatu beharrekotzat jotzen den hondakin-jatorri bakoitzeko, operadoreak hondakin hori onartzeko eskabidea bidali beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, onets dezan, eta, behar izanez gero, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzazailen proposamena erantsiko da.

Hondakin jakin bat onartzeko aukera ikusitakoan, Safety Kleen España SAK onarpenaren ziurtagiria igorriko dio horren titularrari, onarpenaren baldintzak zehaztuta.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen hondakinak lekualdatzeko, martxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretua eta Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena ere bete beharko da.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua arabera.

Unean uneko egoeraren ezaugarriei erreparatuta, ingurumen-organoak azalpenak eska ditzake, argitu diezaioten zergatik den ekonomikoki eta teknikoki ezinezkoa baimen honen barruko hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzea, eta hori egingo du autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioak aintzat hartuta eta Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planeko printzipioetan ezarritakoa betez.

Biziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakinak helburu horietara bideratuko dira, eta Safety Kleen España SAK betetako onarpen-agirietan jasoko da gertaera hori.

Hondakina onartzeko baldintzen jarraipena egitean baldintzok betetzen ez direla egiaztatzen bada eta, ondorioz, partida baztertzen bada, berehala jakinarazi beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Horrekin batera, hondakinaren izaera (HEZ kodea adierazita), jatorria, kantitatea, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoia, baztertutako hondakinaren helmuga eta bestelako gorabehera buruzko datuak eman beharko dira.

Onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organismoari ere jakinarazi beharko zaio.

Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatzeko xedearekin, Safety Kleen España SAK hondakin horiek onartzeko parametroen egiaztapena ahalbidetuko duten baliabide teknikoak eta giza baliabideak eskuragarri izan beharko ditu une oro. Onarpena baldintzatzen duten parametroen zehaztapena beti eta partida guztietan egin beharko da homologatutako metodo baten bitartez eta laborategiko buru batek ikuskatuta. Laborategiko burua zentroko langilea izango da, eta goi-mailako titulu espezializatua eduki beharko du.

Safety Kleen España SAK dituen ekipoen zerrenda aurkeztu beharko du, horien kalibratze-metodoen inguruko informazioa gehituta. Era berean, hondakinak onartzeko parametro bakoitzerako, erabilitako azterketa-metodoak eta neurketaren doitasuna aurkeztu beharko dira.

Baimendutako HEZ kodea duen hondakin bat onartzerik ez badago, ezezko onarpen-agiria egin beharko da, hondakin hori kudeatzeko ezintasunaren arrazoiak azalduta.

Hondakina lehen aldiz atera aurretik, baimendutako kudeatzaileak emandako dagokion onarpen-agiria aurkeztu beharko du organo honen aurrean. Proposatutako kudeatze-bideetan edo hondakinak hartuko dituen kudeatzailearengan izandako aldaketak ingurumen-organoko jakinarazi behar zaizkio; haiek egin aurretik, eta, jakinarazpen horrekin batera, onarpen-agiri berria igorriko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, hura baliozkotu dezan.

D.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zolata iragazgaitza izango dute, eta, orobat, behar diren maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz eramateko, betiere bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Zamalanak egitean, substantzia arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

c) Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, baita ekipoen estankotasunak ere, emisio lausoak edo kontrolik gabek saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien murriztu.

d) TEEHak jasotzeko eta garraiatzeko baldintzek TEEHak eta horien osagaiak prestatzea eta berrerabiltzea ahalbidetu behar dute, eta ez dira apurtu behar, ez gehiegi pilatu, ez substantziarik isuri edo materialik galdu, ezta oliorik eta likidorik isuri behar ere. Merkurioa duten lanparak biltegitratuz gero, behar bezala beteko dira horiek jaso eta garraiatzeko baldintza espezifikoak, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren VII. eranskinean jasotzen direnak.

Aurrez manipulatu diren, hondatuta dauden edo osagai guztiak ez dituzten gailuak jasotzen badira, gertakari hori behar bezala adierazi beharko da D.1.5 apartatuan aipatzen den fitxategi kronologikoan.

D.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

a) Hondakin arriskutsuak gehienez sei hilabetez eduki behar dira biltegitratuta.

b) Balorizatu beharreko hondakin ez-arriskutsuak gehienez bi urtez eduki behar dira biltegitratuta.

c) Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihesak edo isuriak hartzeko gai direnak; gainera, biltegitratze-eremu bereziak izango dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

d) Hondakin arriskutsuak biltegitratzetik eratorritako arriskuak murrizte aldera, Safety Kleen España SAK, bere instalazioetan, hondakinok gunee bereizi batean biltegitratu beharko ditu. Gunee hori estalita egongo da, eta lurzoru estankokoak izan beharko ditu.

e) Euria sartzea eta haizeak herrestan eramatea saihesteko moduan biltegitratu beharko dira onartutako hondakinak.

f) Hautsezko hondakinak eta ontziratutako gabe jasotakoak pabiloiaren barruan gorde beharko dira, multzotan edo gelaxketan, harik eta tratatzen diren arte.

g) Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isuriak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, istripuzko isuriak kanpora irten ez daitezzen. Bilketa-sistema horiek independenteak izan behar dute hondakin mota hauetarako: jarioren bat gertatu eta nahasiz gero, nahasketa horren arriskugarritasuna handitzen bada edo kudeaketa zailtzen bada.

h) Hondakinak desagertu, galdu edo ihes egiten badute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizeko Udalean.

i) Instalazioaren etenaldi teknikoaren egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko bestelako egoeretan, Safety Kleen España SAK badu D.1.1 apartatuan adierazitako hondakinen transferentzia-zentro gisa jarduterik, hondakinak kudea daitezzen beste instalazio baimendu batera eramateko.

D.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuak erregistratzea.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Safety Kleen España SAK fitxategi kronologikoa izan beharko du, formatu fisiko edo telematikoan. Fitxategian, datu hauek jasoko dira, ordena kronologikoan: hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa. Hala dagokionean, onartutako eta kudeatutako hondakinen garraiobidea eta bilketa-maiztasuna ere jasoko dira. Baztertutako hondakinei dagokienez, berriz, kantitatea, baztertutako hondakina sortzen duen enpresa, baztertzeko arrazoia, baztertutako hondakinaren azken helmuga eta beste gorabehera batzuk jasoko dira. Aipatutako fitxategi kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da.

Fitxategi kronologiko hori hiru urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluari jarraikiz, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da fitxategi kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

TEEHak kudeatzeko, fitxategi kronologikoa bat etorriko da 110/2015 Errege Dekretuaren XI. eranskinarekin, eta urteko memoriak otsailaren 20ko 110/2015 Dekretuaren XII. eranskineko gutxieneko edukia izan beharko du.

Fitxategi kronologikoa eta jasotako TEEHei buruzko urteko memoria plataforma elektronikoan kargatuko dira erabilgarri dagoenean, 110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan aurreikusitako terminoetan. Plataforma elektroniko horren bitartez, fitxategi kronologikoari eta urteko memoriaren lanketari dagozkion betebeharrak bete ahal izango dira.

Halaber, hondakin arriskutsuen kasuan, jardueren urteroko memoria aurkeztu beharko da urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

D.1.6.– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, aurreikusten bada zabortegian ezabatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizazio- eta ezabatze-tratamendutik lortutako korrante adierazgarriren bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, eta justifikatu beharko da aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.2.1.– Instalazioan kudeatutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

D.1 apartatuan adierazten diren hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta biltegitratzeko baldintza eta kontrolei kalterik egin gabe, Safety Kleen España SAK bermatu beharko du ondoko tratamendu-lerroetarako baldintza hauek betetzen dituela:

Transferentzia-zentroa - Aldi baterako biltegitratzea.

a) Aldi baterako biltegitratze-jardueraren barruan honako hauek sartuko dira: multzokatzea, produktua edukiontziz aldatu gabe, lantegian horretarako gaitutako tokian, baita haren zama, hustuketa eta berrontziratzea ere beharrezkoa izanez gero, eta ez da ontzien barruko aldearen edo ontzietan gordetzen diren hondakinen gainean eragina daukan bestelako manipulaziorik aintzat hartzen.

b) Ontziratatu gabe dauden hondakinei dagokienez, homogeneoak direnak soilik biltegitratu ahal izango dira batera.

c) Alabaina, aldeztu aurretik karakterizazioa egin beharko da, ziurtatzeko ezen batera biltegitratzeak ez dakarrela arriskua areagotzerik, ezta azken buruko kudeaketa zailtzetik ere.

d) Nahitaez bete beharko dira hondakin arriskutsuak ontziratatu eta etiketatzeari buruzko jarraibideak, indarreko araudian jasotakoak.

Halaber, Europako Hondakinen Zerrendan –Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaz onartutakoan– ezarritako kodearen arabera identifikatu beharko dira hondakinak. Erabaki horren bitartez aldatu zen hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauari jarraikiz.

e) Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzeko instalazioak estalkia izan beharko du, ez dadin iragaz prezipitazio atmosferikorik bat ere. Halaber, lurzoru estankoa izango ditu, eta behar diren maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, isuriok kutxatila itsurantz edo bilketa-putzurantz bideratzeko. Gainera, aurreikus daitezkeen hondakin arriskutsuen balizko isurien adinako edukiera izango dute horiek.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratutako hondakinek likido sukoiak eta erregaiak eta likido korrosiboak biltegitratzearen inguruan indarrean dagoen arautegian ezarritzen diren exijentziak bete beharko dituzte, baita suteen prebentzio- eta babes-arauak ere, eta behar bezala identifikatu beharko dira ezagutu eta bereizi ahal izateko.

g) Isuriak eragin ditzaketen hondakin arriskutsuak kubeta independenteetan biltegitratuko dira, eta, betiere, elkarrekin bateragarriak diren hondakinak dituzten ontzietara bideratuko da kubeta bakoitza. Isuriak biltzeko kubetek zoru eta horma iragazgaitzak izango dituzte, erabat estankoak direnak. Kutxatila horietan jasotako efluenteak kudeatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio.

h) Baimen honi lotutako hondakin arriskutsu ontziratuak gunere bereizietan biltegitratuko dira, motaren arabera identifikatuta. Kudeatzeko onar daitezkeen hondakinak biltegitratzeko gehieneko edukiera 136 m³-koa da, honela banatuta:

– 40 m³ White Spirit produkturako kanpoko bi andelentzat (bat produktu gabiarentzat eta beste bat zikinarentzat).

– 10 m³ B1, Xn gisa sailkatutako hondakinentzat.

– 10 m³ B2, Xn gisa sailkatutako hondakinentzat.

– 36 m³ C, D, Xn gisa sailkatutako hondakinentzat.

Hondakin arriskutsu bakoitza hartarako izendatutako multzoan biltegitratuko da.

i) Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzeko jardueran sortutako efluente oro, ur beltzak izan ezik, bereizita jaso beharko da, eta haren ezaugarrien arabera behar bezala kudeatu, eta ezin izango da sarera isuri.

j) Indarraldiaren arabera, Safety Kleen España SAK eta enpresak igorritako hondakin arriskutsuen kudeatzaile hartzaileen artean hitzartutako onarpen-kontratu edo gutunen indarraldia aldizka egiaztatu beharko da, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren aurrean. Hondakinak hartuko dituzten kudeatzaileak ez badaude Espainian kokatuta, mugaz gaindiko lekualdatzeak arautzen dituen Europar Batasuneko araudia bete beharko da.

D.2.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

D.2.2.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurpena sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakin arriskutsuak biltegitratu eta garraiatzea.

Isurgunea	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurgunearen UTM koordinatuak
IG1	Ur beltzak	Jundizko industrialdeko udal-kolektorea	X: 522.098 Y: 4.743.636
IG2	Euri-urak	Jundizko industrialdeko udal-kolektorea	X: 522.122 Y: 4.743.653

D.2.2.2.– Isurketaren muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen parametroak Amvisaren erregelamenduan ezarritakoak izango dira (1992ko urtarrilaren 24ko ALHAO, 9. zk.). Saneamendu-sarera egiten den isurketaren parametroak honako hauek izango dira, bakoitzerako zehazten diren gehieneko balioekin:

2022ko irailaren 28a, asteazkena

Parametroak	Emisioen muga-balioak
Temperatura	50 °C
Solido esekiak	700 mg/l
Solido jalkikorak	5 ml/l
pH-a	6-10
OEB5	600 mg/l
OEK	1.000 mg/l
Fenolak	5 mg/l
Detergente anionikoak	12 mg/l
Aldehidoak	4 mg/l
Pestizidak	0,2 mg/l
Kloruroak (Cl ⁻)	2.000 mg/l
Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	2.000 mg/l
Sulfitoak (SO ₃ ⁼)	10 mg/l
Fluoruroak (F ⁻)	10 mg/l
Zianuroak (CN ⁻)	1 mg/l
Amoniakoa (NH ₃)	30 mg/l
Nitratoak (NO ₃ ⁻)	20 mg/l
Kjeldahl nitrogenoa, guztira	50 mg/l
Fosfatoak (PO ₄ ³)	60 mg/l
Aluminioa (Al)	10 mg/l
Artsenikoa (As)	1 mg/l
Barioa (Ba)	20 mg/l
Boroa (B)	5 mg/l
Kadmioa (Cd)	0,2 mg/l
Kobaltoa (Co)	0,2 mg/l
Kobrea (Cu)	0,5 mg/l
Kromoa, guztira (Cr)	6 mg/l
Kromo hexab. (Cr ₆)	0,5 mg/l
Burdina (Fe)	10 mg/l
Manganesoa (Mn)	2 mg/l
Merkurioa (Hg)	0,05 mg/l
Molibdenoa (Mo)	0,02 mg/l
Nikela (Ni)	2 mg/l
Beruna (Pb)	0,7 mg/l
Selenioa (Se)	0,5 mg/l
Eztainua (Sn)	10 mg/l
Zinka (Zn)	5 mg/l
Sulfuroak	10 mg/l
Olioak eta koipeak	75 mg/l

Metaletarako mugak metalen guztizkorako dira, eta ez metal disolbatuetarako.

Ezin izango dira diluzio-teknikak erabili emisioen muga-balioak lortzeko.

D.2.2.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Zuzenketa- edo arazketa-neurrien instalazioek isurketak kontrolatu eta lohiak dekantatzeko kutxatila bat izan beharko dute UTM koordinatuen lekuan:

X: 522.099.

Y: 4.743.640.

D.2.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak apirilaren 8ko 7/2022 Legean –Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoan– eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokia zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea; beraz, hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira ezabatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Leheneratzea/berrerabilteza lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio haietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortegi baimenduan ezabatzea dela aurreikusten bada, hondakinak karakterizatzeke, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideei ere.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik; kantitate horiek kalkulatzeko kontuan hartu dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa alde batera utzi gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarritako biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegitratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isurketak edo lixibatuak sor ditzakete, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezzen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes egiten badute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasagarritasuneko Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizeko Udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua betez.

Hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan hondakinak lekualdatzeari buruz ezarrita dagoena bete beharko da.

D.2.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin arriskutsu hauek aitortu ditu:

HEZ	Hondakinaren deskribapena	Arrisku-ezaugarria	Kudeatzeko modua	Biltegitratze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
140605	Beste disolbatzaile batzuk dituzten hondakin solidoak eta lohiak (White Spirit lohiak)	HP3/HP4/HP5	R2	Bidoia	Egunero garbitu beharko dira zamalanetarako nasako toberak edota kutsatutako Premium disolbatzailea biltzeko tanga	4.000
140603	Beste disolbatzaile eta disolbatzaile-nahaste batzuk (disolbatzaile organiko ez-halogenatuak)	HP3/HP4/HP5	R2	Bidoia	Disolbatzaile organiko ez-halogenatua – makinak eta ekipoa garbitzetik ateratakoa– kentzea	500
080111	Pintura eta bernizaren hondakinak, disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dituztenak (nitro disolbatzaile organikoak)	HP3/HP4/HP5	R2	Zuzenean erabilera-puntutik kentzen da, kudeatzaile baimenduari entregatzeko.	Makinen eta ekipoen garbiketa	250
080312	Substantzia arriskutsuak dituzten tinten hondakinak (disolbatzaile organikoak)	HP3/HP4/HP5	R13	Bidoia	Makinen eta ekipoen garbiketa	250
120301	Garbiketa-disoluzio akuosoa	HP5	D9	Bidoia/andela	Garbiketa	500
150202	Xurgatzaileak, iragazkiak eta zapiak (substantzia arriskutsuek kutsatutakoak)	HP5	D15	Bidoia	Zerbitzu orokorrak	1500

HEZ	Hondakinaren deskribapena	Arrisku-ezaugarria	Kudeatzeko modua	Biltegiatze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
150110	Substantzia arriskutsuek kutsatutako metalezko ontziak	HP13	R4	Edukiontzia/big-bag poltsak	Zerbitzu orokorrak	1.500
150110	Substantzia arriskutsuek kutsatutako plastikozko ontziak	HP13	R13	Edukiontzia/big-bag poltsak	Zerbitzu orokorrak	1.000

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodetzea, eta baimena izapidetzean jasotzen da horiei buruzko informazioa. Kode batzuek aldatetaren bat izan badezakete ere, oinarrizko beste batzuk, euren izaera dela eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Hondakina zer motakoa den eta zer substantzia arriskutsu dituen definitzen dute. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeke eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan lagatze- edo ezabatze-kodeak balorizatzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, baldin eta, duten tipologia dela eta, isurketak gertatuz gero eta nahasiz gero, arriskutsuagoak badira edo kudeatzeko zailagoak badira.

c) Indarreko araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dituzte hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek, eta etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute. Halaber, itxita egon beharko dute kudeatzaile baimendu bati eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora eduki biltegian.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartzea. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenbizikoz erretiratu aurretik, eta, hala badagokio, hondakinen kudeatzaile berri bati bidali aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeke. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Safety Kleen España SAK fitxategian erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraio-bideak betetzen dituela halako gaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) Safety Kleen España SAK ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatu beharko du erabilitako olioak. Errege-dekretu horren bidez, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautu zen.

i) Tresna elektrikoen eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak; besteak beste, lanpara fluoreszenteenak. Halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pilen eta metagailuen hondakinek. Kudeatzaile baimenduaren onarpen-agiria izateko, eraman aurretiko jakinarazpena egiteko eta kontrol- eta jarraipen-agiria betetzeko bete-beharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinek eta haien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztatzeak hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Safety Kleen España SAK dituen gailuak PCB daukaten edo eduki ditzaketen kasuan, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu Poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeke eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ozono-geruza agortzen duten substantzien gainean 2009ko irailaren 16an eman zuen 1005/2009/EE Erregelamenduak adierazten dituen substantzia erabiliak baldin baditu Safety Kleen España SAK, berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Safety Kleen España SAK Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari adierazi beharko dio zein den sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, eta zerrenda batean bildu beharko du zeintzuk dauden biltegitatuta aldi baterako deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko ditu datu horiek.

m) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarrizko printzipioetako bat betetzeko, alegia, mota horretako hondakin ahalik eta gutxien sortzeko, Safety Kleen España SAK hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, lau urtetik behin, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere aipatutako legea garatzen duen araudiak ez badu Safety Kleen España SA hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen.

n) Safety Kleen España SA Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken edukitzailea baldin bada, Safety Kleen España SA ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

o) Apartatu honetako e) eta f) apartatuetan (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta m) eta n) apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira,

transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

p) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, Safety Kleen España SAK 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikuluan) –amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan– ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Horrez gain, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak.

D.2.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin ez-arriskutsu hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
Hiri-hondakin solidoak	200301	Zerbitzu orokorrak	500
Papera eta kartoia	200101	Zerbitzu orokorrak	1.200
Plastikoak	200139	Zerbitzu orokorrak	260
Zurak	200138	Zerbitzu orokorrak	500

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi, eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzailer, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegitatu. Hondakinen azken helburua balorizazioa denean, 2 urtez biltegitatu ahal izango dira.

c) Oro har, ebakuatu aurretik hondakin guztiak izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Safety Kleen España SA enpresak onarpen-agiriak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu eta fitxategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

d) Hondakina zabortelean biltegitatuz gero, hondakin ez-arriskutsua eramanez aurretik kontrol- eta jarraipen-agiria bete beharko da, Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari jarraikiz.

e) Balorizatze edo ezabatzeko asmoz hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua arabera.

f) Safety Kleen España SA Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken edukitzailea baldin bada, Safety Kleen España SA ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

g) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Safety Kleen España SAK laborpen-memoria bat deklaratu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Memoria horretan jaso beharko du zein den sortu dituen hondakin ez-arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, eta zerrenda batean bildu beharko du zeintzuk dauden biltegitratuta aldi baterako deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko ditu datu horiek.

h) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikulua betez, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori hiru urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

i) Apartatu honetako c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), e), g) eta h) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

D.2.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako aginduak betetzearren, lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Safety Kleen España SAK lurzorua babesteko neurriak hartu beharko ditu.

Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuari jarraikiz, lurzoruaren egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira 5 urtean behin, gutxienez, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babesteko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea leheneratzen diharduen erakunde egiaztatu batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

Lur-mugimendua.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluen 1.c) apartatuan jasotzen denari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurrak, eraiste-hondakinak, etab.) karakterizatu egin beharko ditu

jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa burutu bitartean gainditze hori antzematen bada, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzorua kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko egiaztatuta dagoen erakunde batek egingo duena. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organismoak onartu beharko du hura gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketa sustatu duen pertsona fisiko edo juridikoaren eta jarduketa egingo duen kontratistaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzorua Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzuria eta jarduketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, baita zolatak ere.

– Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan, erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du, eta, bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira. Horrez gain, induskatutako materialen berrerrabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m³-tik gorakoa bada, erakunde egiaztatua batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, *Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan* jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak zabortegean biltegitratuz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritakoari jarraituz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan ("Induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa") biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarritzko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazioan bertan berrerrabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritako EBA-B (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatua batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezartzen baita lurzorua kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatuzko

sistema, eta zehazten baita erakunde horiek lurzorua kalitatearen gainean egin beharreko ikerketen edukia eta norainokoa.

h) Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako EBA-A ebaluazioko balio-adierazleak eta TPHko 50 mg/kg-ko balioa baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurra lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelan batean.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lursailetik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusten bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzorua arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Horrez gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurra kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek hartu beharreko neurriak ezar ditzan, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatua betez betiere.

D.2.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Beharrezkoak diren neurri guztiak ezarriko dira, indize akustiko hauek gainditu ez daitezten:

a.1.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzaren barrualdean entzungo den $L_{Aeq, 60 \text{ segundo}}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta atek itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzaren barrualdean entzungo den $L_{Aeq, 60 \text{ segundo}}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leihoak eta atek itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko altueran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; horietan, apantailamenduak saihesteko behar den altuera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65
1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren eskatutako zarata-mailak.	

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan ($L_{Aeq,d}$, $L_{Aeq,e}$ eta $L_{Aeq,n}$) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq,T_i}). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneeetako zarata-maila.

D.2.6.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

Safety Kleen España SAREN instalazioa ustiatzean, honako baldintza hauek bete beharko dira: atmosferarako emisioek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako emisioen muga-balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako baldintza teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar atmosferara botatzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Emisio ez-konfinatuek ez dute arau orokor hori bete beharrik izango, horiek biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez bada, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen bada.

Neurri egokiak hartuko dira istripuzko emisioen probabilitatea murrizteko, eta haien efluentek giza osasunerako eta segurtasun publikorako arriskutsuak ez izateko. Efluente gaseosoak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltsan edo geldirik daudenaldiak.

Proiektuan aipatzen diren airearen kutsaduraren inguruko neurriak beti beteko dira; batez ere, instalazioaren andeletako haizetzeguneetan konposatu organikoaren emisioak ekiditeko direnak.

Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolerako erakunde batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahaliko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

E) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

E.1.– Saneamendu-sarera isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, azterketa hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilararen UTM koordinatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
IG1	UR BELTZAK	X: 521.994,15 Y: 4. 743.434,88	Temperatura, SEG, solido jalkikorak, ph, OEB ₅ , OEK, fenolak, detergente anionikoak, aldehidoak, pestizida, Cl ⁻ , SO ₄ ⁼ , SO ₃ ⁼ , sulfitoak, F ⁻ , CN ⁻ , NH ₃ , NO ₃ ⁻ , N _T Kjeldahl, PO ₄ ³⁻ , Al, As, Ba, B, Cd, Co, Cu, Cr, Cr6, Fe, Mn, Hg, Mo, Ni, Pb, Se, Sn, Zn, sulfuroak, olioak eta koipeak	Organo eskudunak ezarritakoak	Organo eskudunak ezarritakoak

b) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen diren aldian egingo dira beti.

c) Isuriak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) apartatua ezarritako kontrol-parametro guztiak betetzen badituzte ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.2.2 azpiapartatua ezarritako mugak.

E.2.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bost urtetik behin: L_d , L_e , L_n , L_{Aeq} , T_i eta $L_{Aeq,60}$ ^{segundo}. Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste maiztasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Neurketa bidezko ebaluazio guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabeko egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan, espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

E.3.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

a) Ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.4 azpiapartatua eskatutako dokumentazioaren kalitatea izan gabe, hurrengo datu hauek aurkeztuko dira lurzorurekiko afekzio berri baten aukera hauteman den kasuan:

– Aintzat hartutako aldian izan diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla eta lurzorua eta lurpeko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera –zolatak iragazgaiztea, drainatzeak, kubetak eta kutxatila– ez ezik, larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela ere egiaztatzen duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Ekipoak eta gainazalak egoera onean daudela egiaztatzen duen edo, hala badagokio, horietan hautemandako gabeziak azaltzen dituen berriarazko adierazpena izan beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeela dioten adierazpena, halakorik balego, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

b) Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduari dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalterik egin gabe –agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide tekniko onartzen du–, eta lurzorua eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotuta, Safety Kleen España SAK lurzorua eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu urak karakterizatzeko, ateratako lurzoru-zutabea karakterizatzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta horiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jarioa; hala, instalaziotik gorako eta beheko uren jarioa alderatu ahal izango da.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

E.4.– Jardueraren adierazleen kontrola.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren inguruko parametro-adierazle nagusien urteko segimendua egingo du, ingurumenean duten eraginarekin lotuta, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztu beharko du.

Adierazlea	Unitatea
Ur-kontsumoa	m ³
Energia-kontsumoa, guztira	MWh
Sortutako hondakin arriskutsuak/Kudeatutako hondakin arriskutsuak	t/t
Sortutako hondakin ez-arriskutsuak/Kudeatutako hondakin ez-arriskutsuak	t/t

E.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu beharko dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomia-ren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldiaren egiten diren kontrol guztiak, ibilgura eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere; horretarako helbide elektronikoa: ippc@euskadi.eus

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, beti martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen azterketa, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta eta haien kausa eta konponbide posibleak azalduta; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldez aurretik hala egin ez bada.

E.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du, eta bertan aurkeztu dituen agiritan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduko ditu. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, azterketa edo neurketen maiztasuna, laginketak eta azterketak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, egiaztatu ahal izateko adierazle horien arabera

enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna (ingurumen-adierazleak).

F) Ezohiko egoeretan, funtzionamendu-baldintzak eta prebentzio-neurriak.

F.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen zenbatespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa gelditzean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak bigarren apartatuko D.2.3 azpiapartatuan ("Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak") ezarritakoari jarraituz kudeatu beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

F.2.– Jarduera bertan behera uztea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituena. Horrenbestez, Safety Kleen España SAK jarduera uzte horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Safety Kleen España SAK instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.3 azpiapartatuan ezarritakoa betez.

F.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako Emisioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Safety Kleen España SAK, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen isurketa edo emisio oro saihesteko.

F.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean zehaztuta dauden ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriez eta jardunerako baldintzez gain, hurrengo apartatuetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuzko isurketak edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzoria babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitratzeko neurri bereziak (substantzia

arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, bal-bulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen ikusizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen egoera orori aurrea hartzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako isurketak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipoen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan sortutako soberako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioak behar bezala funtziona dezan. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura botako aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo zabortegei baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoa hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegitratuko dira. Ez dira inoiz pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

Instalazioek lohiak tratatzeko aukera izanez gero, horietatik hustutako ura berriro bideratu beharko da arazketa-instalazioaren sarrerara.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Ez dago baimenduta hondakin-ura bypass bidez isurtzea arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez egin behar badira isurketak bypass bidez, titularrak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuta. Bypass horren bidez aurreikusi gabeko isurketaren bat badago, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, eta dagokion txostena Ingurumen Sailburuordetzara bidali (apartatu honen j) puntuan adierazitakoari jarraituz).

b) Halaber, erregistro bat eduki beharko da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako gorabeherak jasota uzteko.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu eskura, arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta istripuzko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkor mantentzeko.

d) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, fabrika sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzoru eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzorien azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Hautsezko produktuak biltegitratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegitratuko dira, halako baldintzetan ezen ezin izango baitira ingurunean sakabanatu.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratze-instalazioek eskakizun batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gertatzen diren isurketei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta norbera babesteko ekipo egokiak.

i) Ontzien hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura bat edukiko dute. Bertan, instalazioaren eraginkortasunari eragiten dioten isuriak instalaziora joatea saihestu beharko da.

j) Gorabeheraren bat izanez gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren inguruan kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri berehala eman beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari (zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren), horretarako gaitutako helbide elektronikoaren bitartez: ippc@euskadi.eus. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta arrazoiak (unean-unean zehatz daitezkeenak).
- Berehala aplikatutako zuzenketa-neurriak edo eusteko neurriak.
- Sortutako ondorioak.
- Hala badagokio, epe laburrera aurreikusitako jarduketak.

Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Vitoria-Gasteizko Udala jakinaren ganean jarri behar dira, berehalakoan. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Ustekabeko isurketa gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitezkeen eragina zehaztu beharko dira, haren azterketa barne.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketaren bat gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isurketa hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta Babes Zibilean eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaren kalterik gabe, gerta daitezkeen gorabehera edo arazoei aurre egiteko, jardueraren titularrak lehenbailehen jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari instalazioan aurrez programatuta egingo diren geldialdiak, etengabeko prozesu bati dagozkionak, aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak barne hartuta.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta legeria horrek agintzen dituen betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

G) Baldin eta hala egitea gomendatzen badute araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren maiztasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu egin daitezke jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

H) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Safety Kleen España SAK, aurreko urtean atmosferara edo uretara egindako isurketei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretua eta ingurumena zaintzeko programa betez.

Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz bidaliko da.

Ingurumen-adierazpena agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorritik. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

l) Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, aldeztu aurretik honako helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_autorizacion/p_autho_20183895085814/procedures/proc_20183895329689/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.doc

Organo horren onespina ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak ezartzen ditu.

Nolanahi ere, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, betiere Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002 Legea) 10. artikuluan ezarritako irizpideak betez.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) 7.1.c eta 7.2.c artikuluan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa egin aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

J) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake».

«Laugarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, finkatutako emisioaren muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.

b) Emisioak nabarmen murriztu badaitezke, teknika erabilgarri onenetan aldaketa handiak egi-teagatik gehiegizko kosturik sortu gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legerian ezarritakoaren arabera, irizten badio badirela ingurumen-baimen integratua berrikustea justifikatzen duten inguruabarrak, Estatuaren Administrazio Orokorrak kudeatzen dituen arroetako jabari publiko hidraulikora isurtzeari dagokionez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle baten bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez ere hogeitaz eguneko epean hasteko berrikuspen-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legeriak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza garrantzitsu berrietara egokitu beharra badago; bereziki, inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela hautematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo beste ohar batzuen arabera, egiaztatzen bada ez direla nahikoak ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan ezarritakoaren arabera egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikustea ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan».

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Safety Kleen España SAri, Vitoria-Gasteizko Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko

2022ko irailaren 28a, asteazkena

sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 11.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
AMAIA BARREDO MARTÍN.